


# Justiziasip-en gida azkarra

## Java bertsioa egiaztatu


Kontrol-panelera jo behar duzu:

**Windows 7:** Hasiara sakatu eta eskuineko aldean aurkituko duzu.


**Windows 10:** Cortana bilatzailean “Kontrol-panela” idatzi eta gainean sakatu.




Ondoren, **Programak** aukera sakatu (kontrol-panela kategoriaren arabera ordenatuta ez badago), eta ondoren **Java** sakatu.



Javaren kontrol-panela irekiko da.



Java aukera sakatu eta ondoren Ikusi...




Bertsioa **8.201 (Producto 1.8.0\_201)** dela egiaztatu behar dugu, eta Arkitektura, berriz, **32 bit (x86)** izan behar da. **x64** bertsioa baldin badaukazu, 32 bit-ekoa instalatu behar duzu.

Bertsio zuzena [HEMENDIK](#) instalatu dezakezu.

## Java helbideak egiaztatu

Javaren kontrol-panela itxi gabe, “segurtasuna” aukera sakatu eta ondoren “gune-zerrenda editatu” aukeratu.



Salbuespenen zerrendan hurrengo url-ak gehituta egon behar dira:

<https://justiziaprofesionales.justizia.eus>

<https://justiziasip.justizia.eus>


<https://justiziasip.justizia.net>

<https://justiziaprofesionales.justizia.net>


Gehituta ez badaude, Gehitu aukera sakatu eta lerroak akatsik gabe idatz itzazu. Akatsik ez egoteko, helbideak CONTROL+C eta CONTROL+V erabiliz kopiazea eta itsastea gomendatzen dizugu.

## Internet Explorer-eko leku fidagarrien zerrenda egiaztatu

Internet Explorer-en orri bat ireki eta  aukera edo tresnak aukera sakatu. "Internet-aukerak" sakatu



Leiho bat irekiko da, eta bertan "segurtasuna" aukera sakatu behar dugu. Bertan gaudela, "gune fidagarriak" aukeraren barruan "guneak" aukera sakatu.



Leiho bat irekiko da eta bertan hurrengo helbideak agertu behar dira:

<https://www.justizia.eus>  
<https://justiziaprofesionales.justizia.eus>  
<https://justiziasip.justizia.net>  
<https://justiziasip.justizia.eus>

Akatsak ekiditeko goiko zerrenda kopiazea eta itsastea gomendatzen dizugu. Ondoren, leihoa itxi.